

OHIKO GALDERAK

Bizkaia Kirolur Manifestuaren partaidetza-prozesuari buruz

1. Zer da Bizkaia Kirolur manifestua eta zertarako jartzen da martxan?
2. Zer fase izango ditu prozesuak eta noiz garatuko da fase bakoitza?
3. Zer tailer-mota egingo dira?
4. Nork har dezake parte?
5. Nola funtzionatzen du izena emateko prozesuak?
6. Non, noiz izango dira tailerrak?
7. Zer laguntza eskainiko dira parte-hartzea errazteko?
8. Zer emaitza izango ditu prozesuak?
9. Zerbait prestatu behar dut tailerren aurretik?
10. Non kontsultatu dezaket informazio eguneratua edo non argitu ditzaket zalantzak?

1. Zer da Bizkaia Kirolur manifestua eta zertarako jartzen da martxan?

Bizkaia Kirolur Manifestuak Bizkaiko kirolaren orainari eta etorkizunari buruzko ikuspegi partekatua jasoko du.

«**Pertsona guztientzako kirola bizitzan zehar**» lelopean, kirol-eredu inklusiboagoa, eskuragarriagoa eta lurraldearen premia eta erronka sozial, demografiko eta kulturalekin lotuagoa lortzen lagundu nahi du.

Prozesu horren ondorioetarako, kirola zentzu zabalean hartzen da, eta barne hartzen ditu bai antolatutako praktikak – eskolakoak, federatuak eta udalekoak –, bai ongizatearekin, osasunarekin, identitatearekin, sozializazioarekin eta espazio publikoaren erabilera aktiboarekin lotutako praktika libreak edo egituratu gabeak. Begirada horrek onartzen du herritarrek kirolarekin erlazionatzeko dituzten moduen aniztasuna, eta haien dimentsio sozial, kultural eta komunitarioari balioa ematen dio, Europako esparru eta agenda nagusiekin bat etorritz. Halaber, kirolaren ikuskera hori bizitzako etapa guztietara zabaltzen du: haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, helduarora eta zahartzarora.

Prozesuak aukera emango du askotariko esperientziak eta ikuspegiak entzuteko, erronkak eta aukerak identifikatzeko eta Bizkaiko kirol-ekosistemaren hurrengo urratsetan kontuan har daitezkeen orientabideak eraikitzeke.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza Nagusiak sustatzen du, Bizkaia 2026ko Kirolaren Europako Lurralde izendatzeko esparruan.

2. Zer fase izango ditu prozesuak eta noiz garatuko da fase bakoitza?

Ikerketaren, [esparruaren definizioaren](#) eta mapaketaren aurretiazko fase baten ondoren, [Bizkaiko kirol-ekosistema](#) osatzen duten 200 agente inguru identifikatu dira.

Udan, kontaktatutako pertsonen eta erakundeen interesa, prestasuna eta lehentasunak jasoko dira.

Irailaren hasieran, izen-ematea formalizatzeko gonbidapenak bidaliko dira.

2026ko irailetik urrira bitartean, aniztasunari buruzko bost tailer eta hiru tailer tekniko egingo dira.

Ondoren, emaitzak aztertu eta kontrastatuko dira, Bizkaia Kirolur manifestua egiteko. Emaitzak 2027ko urtarrilean aurkeztea aurreikusten da.

3. Zer tailer-mota egingo dira?

Bi tailer-mota egingo dira:

5 aniztasun-tailer. Kirola hainbat ikuspegitatik behatzeko entzute-espazioak izango dira:

- Dibertsitate funtzionala.
- Kulturarteko eta jatorrizko aniztasuna.
- Belaunaldi-aniztasuna: gazteak.
- Belaunaldi-aniztasuna: adinekoak.
- Genero- eta sexu-aniztasuna.

Helburua ez da pertsonak kolektibo itxietan sailkatzea, baizik eta premiak, oztopoak, desberdintasunak eta aukerak identifikatzea ikuspegi intersektorialetik.

3 tailer tekniko. Analisi-espazioak izango dira, eta honako hauek izango dituzte ardatz:

- Eskola-adineko kirola.
- Kirol federatua.
- Pertsona guztientzako kirola (udal-eremua).

Aniztasun-tailerretan lortutako ikaskuntzetatik abiatuko dira, erronkak lehenesteko eta orientazio eta ekintza-ildo bideragarriak aztertzeke.

4. Nork har dezake parte?

Bizkaiko kirol- eta gizarte-ekosistemako pertsonak, erakundeak eta profesionalek parte hartu ahal izango dute, bai eta osasunarekin, hezkuntzarekin, inklusioarekin, ongizatearekin, aniztasunarekin edo bizitza komunitarioarekin lotutako beste eragile batzuek ere.

Ez da beharrezkoa kirol-erakunde bateko kide izatea, ezagutza teknikoak izatea eta normalean kirola egitea.

Halaber, kiroliek egiten ez duten, kirolera iristeko oztopoak aurkitzen dituzten edo beste eremu batzuetatik ikuspegi garrantzitsuak eman ditzaketen pertsonen esperientziak ezagutu nahi dira.

Parte-hartzea zuzenean gonbidatuz antolatuko da, edo prozesuari lotutako erakunde eta eragileek proposatuta, taldeen aniztasuna eta dibertsitatea ziurtatzen saiatuz.

5. Nola funtzionatzen du izena emateko prozesuak?

Izena emateko prozesua bi fasetan egingo da:

1. Intereseko adierazpena. Udan, kontaktatutako pertsonen eta erakundeen interesa eta lehentasunak jasoko dira. Inprimakian tailer bat edo batzuk adierazi ahal izango dira, eta erakunde berak pertsona desberdinak proposatu ahal izango ditu, gai bakoitzarekin duten esperientziaren edo loturaren arabera.

Interesa adieraztea ez da behin betiko inskripzioa.

2. Inskripzioa eta berrespena. Jasotako erantzunetatik abiatuta, taldeak konfiguratzeko, tailer bakoitzaren gaia, profilen eta perspektiben aniztasuna eta erabilgarri dagoen gaitasuna hartuko dira kontuan.

Irailaren hasieran, hautatutako pertsonen eta erakundeen gonbidapen formal bat jasoko dute izen-ematea osatzeko eta bertaratuko direla berresteko.

6. Non eta noiz izango dira tailerrak?

Tailerrak aurrez aurrekoak izango dira eta [Kirol Etxean](#) egingo dira, Martín Barua Pikaza kaleko 27. zenbakian, Bilbon.

Aniztasun-tailerrak. Hiru orduko iraupena izango dute, 17:30etik 20:30era.

- **Dibertsitate funtzionala:** irailaren 22a, asteartea.
- **Kulturarteko eta jatorrizko aniztasuna:** irailak 24, osteguna.
- **Belaunaldi-aniztasuna – gazteak –:** irailak 29, asteartea.
- **Belaunaldi-aniztasuna – adinekoak –:** urriak 1, osteguna.
- **Genero eta sexu aniztasuna:** urriak 6, asteartea.

Dokumentu hori eguneratzen joango da prozesuak aurrera egin eta galdera berriak agertu ahala.

Tailer teknikoak. Lau orduko iraupena izango dute, 09:30etik 13:30era.

- **Eskola-adineko kirola:** urriak 27, asteartea.
- **Kirol federatua:** urriak 28, asteazkena.
- **Pertsona guztientzako kirola – udal-eremua –:** urriak 29, osteguna.

7. Zer laguntza eskainiko dira parte-hartzea errazteko?

Prozesuaren helburua oztopo fisikoak, sozialak, kulturalak eta/edo komunikatiboak identifikatzea eta murriztea da.

Irisgarritasun-, laguntza- edo egokitzapen-neurriren bat behar duten pertsonak hori adierazi ahal izango dute [formularioan](#). Erakundeak eskaera bakoitza baloratuko du, eta eskura jar daitezkeen neurriak berretsiko ditu.

8. Zer emaitza izango ditu prozesuak?

Tailerrak entzuteko, aztertzeke eta elkarrekin eraikitzeke espazioak dira. Ez dute erabakirik hartuko, eta ez dute automatikoki onartuko ez neurririk, ez aurrekonturik, ez konpromiso instituzionalik.

Ekarpenak baliagarriak izango dira ikaskuntzak, beharrak, erronkak, aukerak eta ekintza-ildo posibleak identifikatzeko. Ondoren, bideragarritasunaren eta dagokion eskumen- eta erakunde-esparruaren arabera baloratu beharko dira.

Emaitzak oinarri izango dira Bizkaia Kirolur Manifestua egiteko eta orientazio eta ekintza-ibilbide posibleak definitzeko.

Emaitza nagusiak publikoak izango dira, eta egindako ekarpenek prozesuan aurrera egiten nola lagundu duten azalduko da.

Prozesua instituzionala eta plurala da, eta ez du programa edo agenda zehatzik zehazten.

9. Zerbait prestatu behar dut tailerren aurretik?

Ez da beharrezkoa izango dokumentazioa prestatzea, ezta aldez aurreko lanik egitea ere.

Tailerraren aurretik, izena eman duten pertsonak beren helburuei, dinamikari eta datu praktikoei buruzko beharrezko informazioa jasoko dute.

10. Non kontsultatu dezaket informazio eguneratua edo non argitu ditzaket zalantzak?

Prozesuari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen dago eskuragarri:
<https://kirolur.bizkaia.eus/eu/manifestua>

Webgune horretan honako hauek ere kontsulta daitezke:

- Parte-hartze prozesuaren [esparru-dokumentua eta printzipio gidariak](#).
- [Bizkaiko kirol-ekosistemaren mapa](#).

Bizkaiko Kirolur Manifestuaren Idazkaritza Teknikoarekin ere jar zaitezke harremanetan: bizkaiakirolur@gmail.com